

# Asisko gutuna

2023ko ekaina

4. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

176. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Zenbat joan-etorri berdintasunaren gaian! Behar haina landu gabeko gaia izango da beti. Baina zein pozgarria den berdinen arteko elkartasuna!

## Gogoetarako gaia

### *Berdintasuna*

Elkartasuna, Frantzisko Asiskoaren arabera, anaien artekoa da; eta berdin direnen artekoa. Anaien artean bereizketarik ez egitea asko zaindu zuen berak, eta berak ez zuen nahi izan batzuk gehiagotzat eta besteak gutxiagotzat hartuak izatea. Berdintasun-printzipio hori Frantziskoren karismari dagokio hasieratik.

Hala ere, hainbat baldintza daude nahi den berdintasun hori lortzea zaila egiten dutenak: hartutako talde-ohiturak, guregan eragina duten gizarte-ereduak, ezaugarri pertsonalak, genero-arazoak, lan- eta antolaketa-dinamikak, eta abar. Horrenbestez, elkarteko eta familiako kideen arteko berdintasun-printzipioa mehatxupean dago. Are gehiago, beti izango da lan eginda lortu beharreko zerbait berez gertatzen dena baino.

Horregatik guztiagatik, bi gauzari adi egon beharko dugu beti. Lehenengoa da senideen arteko berdintasuna benetakoa izan dadin zaintzea, ez dadila hitz hutsa izan itxurak egiteagatik.

Kideen arteko berdintasuna zaintzen laguntzen duten bitartekoak jarri beharko ditugu: autoritatea denboran mugatua izatea, botere-abusuak salatzea, zerbitzu desberdinetan pertsonak aldatzea, berdintasuna ageriko eta nabaria izango diren uneak, beti gutxiago izatea tokatzen zaizkien sustapena...

Horrezaz gainera, —adi egon beharreko bigarren gauza— talde- eta antolaketa-dinamismo batzuetan kideetako batzuei besteak duten baino autoritate handiagoa eman behar zaie, erabakitzeke eta zuzentzeko erantzukizuna baitute. Hala ere, dena berdinen arteko taldeak hobeto funtzionatzeko izan beharko du.

Baina baliabideekin batera, guztiok Jainkoaren aurrean berdinak garenaren kontzientzia ere izan beharko dugu, ez bakarrik eskubideetan, baita gure oinarrizko izatean ere. Bera izan da gu baino lehen bizitzan eta maitasunean; maitasun bera denoi baina eta bakoitzari modu pertsonalean erabat.

## Biblia pasartea: Flp 2,1-5

Beraz, egia bada Kristok aholku ematen dizuela eta maitasunak adorez betetzen zaituztela, egia bada Espirituagan bat eginik bizi zaretela eta bihozbera eta gupidatsu zaretela, bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz. Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz; ez nork bere onari bakarrik begiraturaz, besteena ere bilaturaz baizik. Izan itzazue zeuen artean Kristo Jesusek izan zituen sentipen berak.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Eta joka bezate elkarrekin Jainak dioen bezala: Besteek zeuei egitea nahi zenuketen guzia, egin zuek ere besteei; eta: Ez egin inori zeuretzat nahi ez duzunik.

Bestalde, anaiek ez bezate izan boteretik eta aginterik, eta are gutxiago beren artean. Izan ere, honela dio Jaunak Ebanjelioan; herrietako buruzagiek menpean hartzen dituzte herriok, eta handi-mandiek beren agintea ezartzen diete. Ez du horrela izan behar anaien artean. Hauen artean handien izan nahi duena izan bedi guztien zerbitzari eta morroi; eta beraien artean nagusia egin bedi txikienaren pareko.

Eta anaia batek ez biezaio beste bati gaitzik egin edo esan baizik eta, espirituzko karitateaz, elkar zerbitza eta elkarri obedi biezaiote borondatez.

Eta ministroa saia bedi haiei laguntzen, antzerako egoeran berari laguntzea nahiko lukeen bezala. Eta ez bedi inor priore deitu, baizik eta den-denak anai txiki dei bitez. Eta oinak garbi biezazkiote elkarri.

(1Er 4,4-6; 5,9-14; 6,2-4)

## Otoitza

Giza Jesusengan sinesten dut  
Nazareteko ume apala,  
zur-usain eta seme gozotasunaz  
gizadiari Aitaren maitasuna  
deskubriarazten jakin zuen.  
Bere bizitza esnatu zuen maitasuna,  
iristen ari zen erresumaren egunsentian,  
haragitutako Jainkoaren handitasuna  
gizon eta emakume bakoitzarengan aurkitzean.  
Hainbeste hotz pasatzeagatik  
nire oin moreetako Kristo da,  
baina aldi berean gorri daudenak  
gizakia eta bere bideen aldeko  
pasioa ibiltzeagatik.

Isiluneetako Jesus da;  
Aitarekin sintoniaz.  
Gaur egun errepikatzen den aurpegia,  
munduko jende guztiarengan;  
zeren nire Kristo unibertatsala baita.  
Gaur sentitu eta ikusten dudana aurpegia  
egun hartan gurutzean bezala desitxuratua.

Nire Kristoa da  
abandonatutako hauraren negarrear.  
Itsasoan den migratzailearen  
begi iltzatuetan.  
Mariak bezala  
bere Justizia eta Berdintasun Magnifikata  
oihukatzen duen emakume-ahotsean,  
Edo langileak irekitako ildoetan,  
bere lansariaren zain.  
Hau da nire Jesus.  
Hori eta gehiago da bera dena;  
bost letratan sartzen delako  
gizona osoa eta askoz gehiago.  
Jainko isila eta ezkutua,  
Itsasoari eginiko otoitz leun gisa;  
entregatzera gonbidatzen zaituena  
bere erritmoan;  
aske harrapatzen zaituela.  
Zuk zure gurutzeta noiz helduko zain,  
zu berpizteko.

Max Echevarría Burgos, JL

## Gutuneko azken hitzak

Pertsona batek beste bati goitik behera begiratzeko eskubidea, altxatzen lagundu behar dionean du bakarrik.

(Gabriel García Márquez)

### 2023ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate erreferentzia guztiak:

1 Mt 26,36-4	7 Mk 12,18-27	13 Mt 5, 13-16	19 Mt 5,38-42	25 Mt 10, 26-33
2 Mk 11,11-2	8 Mk 12,28b-34	14 Mt 5,17-19	20 Mt 5, 43-48	26 Mt 7,1-5
3 Mk 11,27-33	9 Mk 12, 35-32	15 Mt 5,20-26	21 Mt 6,1-6.16-18	27 Mt 7, 6.12-14
4 Jn 3,16-18	10 Mk 12, 38-44	16 1Jn 4,7-16	22 Mt 6, 7-15	28 Mt 7,15-20
5 Mk 12,1-12	11 Jn 6,51-58	17 Lk 2,41-51	23 Mt 6,19-23	29 Mt 16,13-19
6 Mk 12,13-17	12 Mt 5,1-12	18 Mt 9,36-10,8	24 Lk 1,57-66.80	30 Mt 8, 1-4

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Ekaineko otoitza hilaren  
29ean izango da.